

# EGUNKARI LABURRA

Laida Martínez Navarro

## • Astelehena.

*Mendiak* beltz bat akatu du. Mendia, kabroia. Ostikadaka hasi eta hil arte ez da gelditu. Odoletan geratu zaizkio botak. Beltza esnatu egin da azken unean, baina ezin izan du ezer egin. Mendia burutik jota dago.

Arratsaldean ez naiz klasera joan; pastila bat hartu eta ohean etzan naiz oso urduri zazpiak jo arte.

Loreak galdetu dit ea loditu naizen. *Haitzulo* tabernan topo egin dugu eta gero eta popa lodiagoa daukadala esan du. Urdanga.

Amak diruaz galdetu dit. Atzo bi mila hartu niola esan diot. Begira geratu zait baina ez du ezer esan. Begiak gorri-gorri zeuzkan. Nik uste, negarretan izan dela.

## • Asteartea.

*Lorea* putakume bat da. Dutxa hartzerakoan ispiluan begiratu diot nire buruari. Lodi nago. Toaila batekin estali dut ispilua.

Beltzarena aipatu dute telebistan. Pantailan ikustean eztulka hasi eta itotzear egon naiz, baina aita ez da ezertaz enteratu. Nik uste, begiratu ere ez didala egin. Mendia harro egongo da, ziur. Txerri zikina. Beltza atari batean zegoen, mozkortuta eta guztiz lotan.

Kontu horrekin kirioak airean dauzkat.

## • Asteazkena.

Pastila batzuk pasa dizkidate institutuan: *Lexatin*. Horiakin lasai-lasai egiten omen dira azterketak, lasaigarriak dira-eta. Bi irentsi ditut komunean aproba egiteko eta hartu eta ordu erdira, ia lo seko geratu naiz. Hori logurea!... Irakaslea txaparekin gora eta beheara eta ni zurrungaka aulkian.

Mendia topatu dut etxe ondoan. Izerditan eta begiak zabal-zabalik etorri zait. Kezkatuta omen dabilela, tailerretik hurbil polizia galdezka ikusi duelako. Ez kezkatzeko esan diot erdi lotan, inork ez gintuela ikusi... Mendia ez da lasaitu, ordea; lepotik harrapatu nau eta hormaren kontra estututa, beltzarena norbaiti kontatzen badiot, hilko nauela esan dit. Burutik jota dago baina ikusi ondoren, neu ere urduri jarri naiz.

Beste *Lexatin* bat hartuko dut.

## • Osteguna.

*Lexatin* dela-eta, primeran egin dut lo. Datorren astean batzuk erosiko ditut, horretan geratu naiz saltzailearekin. Dirua astelehenerako lortu behar dut.

Lorearekin topatu naiz berriro, morroi batekin ikusi dut musuka Haitzulon. Gaur, horrekin; bihar, beste batekin. Batzuetan ordaindu egiten diote. Horrek ondotxo daki dirua zelan lortu.

Gurasoen kajoian ez da ezer egon. Madarikatuak!, sosik ere ez.

Amak diru guztia hartu bide du eta ez dit ezer utzi. Kaka eta kaka zaharra!... Pastilarik gabe nabil eta ezin diot Mendiari eskatu. Berak emango lidake, ziur; baina nik ez diot eskatu nahi. Ez beltzaren kontu horren ondoren.

Beltzari kiratsa zerion. Horrexegatik hasi zen kontua. Beltzaren keruagatik.

Baita Mendiari pastilak onartzeagatik ere.

Mendiak argi eta garbi esan zidan gau hartan: pastila gehiago eta doan nahi banuen, berarekin joateko... Baietz erantzun nion, jakina; eta elkarrekin alde egin genuen diskotekatik. Kalera atera, pastila pasa eta izkina batera eraman ninduen. Eskuak ezkerraldetik eta eskuinaldetik. Bere atzamarrak, leku guztietan. Pastila irentsi nuen. Gerria, aldakak, titiak. Nik gogorik ez, baina berak dena ikutzen zidan.

Hortik bi minutura, gona altxatu eta kulerotik sartu zuen eskua. Protestaka hasi nintzaion, hori pastila bat baino gehiago kostatuko zitzaiola. Baietz esan zidan.

Nik uste, ordurako anfetamina asko hartuta zegoela.

## • Ostirala.

Praka batzuk erosi nahi ditudala eta dirua emateko, horixe esan diot amari. Erantzuna: Dirurik?... EZETZ!!!

Bada, modu batean edo bestean lortu behar, zeren tipoak pastilak ekarriko baitizkit astelehenean. Lorearekin hitz egingo dut, horrek zer edo zer bilatuko dit, ziur.

Pastilak onak omen dira zeren arazo guztiak gorabehera, lasai bainabil. Poltsiko guztietan bilatu ondoren, bostehun eta hamar pezeta batzea lortu dut. Horrekin mozkortzeko ere ez. Hau ostiral nazkagarria.

Mendia burutik dabil... ez dit telefonoz deitu, bada! Oraintxe bertan jo du telefonoak, hartu eta elkarrekin geratzeko esan dit. Pikutara bidali dut. Bere ahotsa entzutean oso urduri jarri naiz, bakean utz nazala baino ez dut nahi.

Kirioak dantzan dauzkat eta pastila gehiago behar ditut.

Banoa Haitzulora.

### • Larunbata.

Atzokoa itzela izan zen, parrandan gau osoan, kopak eta pastila berri batzuk. Morroi batek gonbidatu ninduen. Jon deituriko batek. Ez nuen ezagutzen, oso jatorra. Larrutan ibili ginen gero bere kotxean eta zortzietan oheratu nintzen hauts eginda. Arratsaldeko lauretan, ordea, amak esnatu egin nau eta janzteko oihukatu dit, amona bostetan agertuko dela. Kaka zaharra!... urduri altxatu naiz, eskuak dar-dar eta pastila bat hartu behar izan dut lasaitzeko. Azkena. Eskerrak gero Lorearena daukadan!

Amonak mila pezeta eman dit eta oso aurpegi txarra dudala esan du. Berdin da, Loreak proposatu didan negoziatorako ez da beharrezkoa guapa egotea. Bederatzietan elkartuko gara bere etxean eta bertan egingo dizkigute argazkiak.

Opilak eta kafea askaltzen izan gara amona, ama eta hirurok baina ez gustora. Askok nabaritu da. Isilaldiak luzeak izan dira. Nik ez dut tutik esan. Azkenean, betikoa: ama kexaka hasi da. Oso lanpetuta dabil lela bulegoan, egun osoa ematen duela etxetik kanpo eta nik ez diodala ezertan laguntzen. Badirudiela alabarik ez daukala.

Amonak paso egin du: "hau mundu hau!" eta txorakeria batzuk esan eta beltzaz hitz egiten hasi da. Beltzaz. Kikara zorura botatzear egon naiz, benetan. Zitzuan atera naiz sukaldetik.

Bart taberna batetik bestera ibili nintzen Mendiarekin topo ez egiteko. Ez dut berriro ikusi nahi. Lorearena ondo badoa, ez diot pastila gehiagorik hartuko. Beste bati erosiko dizkiot eta kito.

Horrexegatik gertatu zen beltzarena. Pastilak doan lortzen saiatzeagatik.

Mendiak eskua kulerotik sartu zidanean, hori garestixeago zela eten nion. Baietz, berak; dozena bat pastila eta zakila sartzen uzteko. Nik, ezetz; bi dozena nahi nuela. Ados jarri ginen eta atari batean egiteko esan zidan.

Atarian beltza zegoen.

Oso urduri nago eta, kontu horretaz, aspertuta.

Ea argazkiarena ondo doan!

### • Igandea.

Lorea urdanga hutsa da. Goitik beheraino. Neu ere.

Atzo bederatzietan bere etxerantz jo eta argazkilaria aurkeztu zidan. Kontua sinplea zen: aurpegia moztuz estali; karrete bategatik,

hogeita bost mila. Biluztu nintzen eta bi ordu eman nuen gora eta behera, morroiak agintzen zidana egiten. Ez zen erraza. Oso urduri nembilen eta morroiak hori argazkietan nabarituko zela errepikatzen zuen. Loreak pare bat pastila eman ondoren, askoz hobeto joan zen dena. Argazkilaria pozik zegoen eta kontsolador batekin eta guzti egin zizkidan argazkiak. Nazkagarria. Azkenean, “ederto” esan eta dirua ordaindu zidan.

Lorearen pastilek ondo utzi ninduten eta gaur ez naiz etxetik atera. Sofan etzanda eman dut eguna, lokartuxe, ama etorri eta alfer hutsa naizela eta potro-jorran egon besterik ez dudala egiten oihukatu arte, horrela ez dela arraroa loditzea.

Logelan entzun ditut bera eta aita ika-mikan. Doazela pikutara. Haien artean haserre badaude, nik ordaindu behar.

Etxe honetako asteburuak nazkagarriak eta aspergarriak dira oso.

Atzoko pastilak *Dalerol* deitzen omen dira. Bihar Dalerolez galde-tuko diot saltzaileari.



## • Astelehena.

Saltzailea ez da agertu. Madarikatua!... eta dardarka eta izerditan ibili naiz egun osoan, Haitzulora ailegatu arte.

Sartu eta Lorea ikusi dut morroi batekin barran. Hurbildu orduko, bi musu eman eta argazkilaria pozarren dagoela esan du. Ea noiz errepi-katuko dudan, baina bikote batekin... Saltzailea ez zaidala etorri eten diot, txarto nengoela. Dalerol pasa dit. Irentsi eta zeharo lasaitu naiz. Bakea.

Hizketan geratu naiz Lorearekin, bikotearena pentsatuko dudala, momentuz diru falta ez daukat eta. Loreak morroia aurkeztu dit. Oso tipo jatorra. Pastila asko atera du eta lau Dalerol erosi dizkiot.

Ez dut Mendia ikusi baina ez dit inporta. Burutik jota dago. Burutik jota dagoelako gertatu zen beltzarena.

Gau hartan burutik jota eta bero zegoen. Prakak lehertzeaz. Eta guztiz ero. Atarira sartu orduko, gainera etorri zitzaidan. Txerria. Jarrai zezala utzi nuen hasieran; baina gero, ezetz. Zakila atera zuenean, pastilak orduantxe emateko esan nion. Pastilarik gabe ez zegoela ezer.

Eta hura haserrea.

Txotxongiloa ez zela eta nik ez nekiela bera nor zen. Txarrena, oso baju hitz egin zidala. Baju-baju.

## • Astearte.

Gurasoak sesioan izan dira arratsalde osoan. Kaka zaharra. Institututik heldu eta atean bertan entzun ditut oihuak. Kalera itzuli naiz eta tabernaz taberna pasa dut denbora hamarrak arte. Sartzean oihu batean aurkitu ditut berriro. Hori nazka, nerbioetatik jartzen naute. Afaldu gabe oheratu naiz. Hobe, ipurdirako.

Hiru Dalerol eta lo seko geratu naiz. Oihu gehiagorik ez.

## • Asteazkena.

Ama negarretan izan bide da. Begiak gorri-gorri eta aurpegia zurbil aurkitu dut. Gure etxekoa jasanezina da. Aita ez da sukaldean agertu. Putakumea.

Institukurantz atera naiz segidan baina ez naiz sartu. Ez neukan gogorik. Pare bat opil jan dut kafetegi batean eta gero erosketetan ibili naiz. Diru guztia xahutu dut. Prakak eta jertse bat. Beltzak. Horrela argalago emango dut.

Lorearen bila joan naiz arratsaldean. Pastila gutxi eta dirurik ez. Gehiago lortu behar dudala esan diot.

Mendiak debalde ematen zizkidan batzuetan. Nire ipurdi potoloa gustoko zeukala esan ohi zuen. Hortaz, txerrikeria batzuk egiten utzi eta pare bat pastila pasatzen zidan ordainetan. Mendia tipo arriskutsua da, kontuz ibiltzekoa. Baina ondo konpontzen ginen eta pastilak hartu egiten nizkion, jakina.

Loreari baietz esan diot eta ostiralerako geratu gara. Oraingoan bikote batekin egingo dizkirate argazkiak. Berrogei mila ordaintzen omen dute.

## • Osteguna.

Beltza gora eta beltza behera. Institutukoek etengabe hitz egiten dute beltzaz. Goiz osoa eman dute horrekin. Patioko bazter batean eserita, elkarrizketak entzun ditut. Nazkanteak. Ez naizela ezertaz enteratzen uste dute. Je.

Klasera bueltatzeko orduan, Mendia agertu da. Horiek aurpegiak klasekoenak!... beldurrak airean geratu dira denak. Neu ere bai. Baina Mendia horrelakoa da: edonor beldurtzeko moduko itxura dauka. Horrexegatik neukan gustoko berarekin ibiltzea. Berarekin egonda, inork ez baitzidan farre egiten.

Bada, agertu eta balantzaka hurbildu zait ero aurpegirarekin. Klaseko gehienak barrura joan dira segidan; baina batzuk, ez. Batzuk atarian gelditu dira gure esanak entzuteko. Aluak.

Mendia sutan zegoen, ia onetik aterata eta beldur izan naiz, zeren baju-baju hitz egin baitit. Polizia beltzaz galdetzera joan zaiola eta taillerreko nagusiak kalera bota duela... Eta ea nork eman dion bere izena poliziari... eta neu izan banaiz, kontuz ibiltzeko, txikituko nauela...

Ez naizela neu izan eta bakean uzteko, horixe erantzun diot. Mendiak ez du tutik esan. Ateko jendeari begiratu dio... eta neroni ere bai. Buelta eman eta hanka egin du.

Azken pastilak irentsi arrren, dardarka jarraitzen dut.

Atarian ere baju-baju hitz egin zidan. Txantxetan hartu eta begira gero zer gertatu zen. Pare bat ostikada jaso eta berriro sartu zidan eskua kulerotik. Nahitaez egingo genuela. Bildurtu egin nintzen eta atari horretan Kristolako kiratsa zegoela esan nion, kiratsak nazka ematen zidala eta ez nuela hor egin nahi.

## • Ostirala.

Argazki gehiago egin dizkirate eta oso nekatuta nago. Oraingoan ez gara Lorenean egon. Beste toki batera eraman naute. Ohe bat, argi bereziak sabaian. Denetarik. Bi ordu edo gehiago eman dut morroi batekin larrutan. Handi-handia zeukan eta zulo guztietatik sartu dit. Egiten genuen bitartean txerrikeriak murmuratzen zituen etengabe. Oso tipo arraroa. Esku hotzak eta mihi likina. Eskerrak mozorroa jantzita neukan. Dena den, hiru Dalerol irentsi eta, hortik aurrera, ez naiz ezertaz enteratu. Primeran. Berrogei mila ordaindu didate.

Argazkiekin bukatu eta Haitzulora joateko esan dit Loreak. Ezetz izan da nire lehenengo hitza, Mendiarekin topatzeko arriskuagatik, baina beste pastila bat hartu eta etxean aspertu egingo nintzela pentsatu dut. Beraz, Haitzulora joan naiz.

Azken pastila ona zen. Poz-pozik utzi nau arratsalde osoan eta ez naiz ezertaz gogoratu. Parranda hutsa.

Beltzaren ataritik hurbil pasa naiz etxeratzeko orduan. Espaloiaz aldatu eta ez dut begiratu nahi izan.

Orain gaueko ordu biak dira eta ohera noa.

Beltza, beltza eta beltza. Kaka zaharra.

Hiri osoan ez dago beste hizpiderik.

Kokoteraino nago!

## • Larunbata.

Beroki zahar batean gorde dut atzoko dirua. Amak aurkitzen badit, akabo... Edo igual, ez. Igual ez lidake ezer esango. Batek daki. Gurasoek ez didate puto kasurik egiten. Hutsaren hurrengoa naiz.

Berdin dit, doazela pikutara.

Mendiak baino inork ez nau kezkatzen. Atzo ez nuen ikusi. Hori bakea, baina arraroa da eta jendea galdezka hasi da dagoeneko. Ea non dagoen jakin nahi dute. Mendia?... Mendia?... Niri galdetzen didatenean, eroarena egiten dut eta kito. Ez dut berataz ezer jakin nahi. Burutik jota dago eta arriskutsua da. Ondotxo konprobatu nuen atarian.

Nik kerua zegoela esan eta hotz-hotz geratu zen. Eta hori begirada. Burua paretaren kontra hautsiko zidala pentsatu nuen. Une hartanxe ikusi genuen beltza. Bazter batean, tapaki batek estalia eta lo seko. Mozkortuta ere bai. Hortik zetorren kerua. Beltza mugitu eta zer edo zer murmuratu zuen ametsetan. Animalia handi eta beltz bat iruditu zitzaidan eta farre egiten hasi nintzen. Farre eta farre.

Ez dakit zergatik, baina horrek bere onetik atera zuen Mendia. Beltzarengana joan eta ostikadaka hasi zen bat-batean. Farre egiteari utzi nion. Ostikadak beltzaren buruan eta bularrean. Botak, gorrituta. Ni, liluratuta eta begira. Ez nuen ezer ulertzen. Eta ez nintzen mugitu. Hiru metrora geldirik, Mendia beltza jipoitzen ikusi nuen. Luzaro egon zen horretan. Edo igual ez oso luzaro eta luze egin zitzaidan niri.

Ez dakit. Ez dut gogoratu nahi.

Haitzulora noa.

## • Igandea.

Atzo Loreak pixka bat hauts pasa zidan. Lur jota ikusi ninduen, komunera eraman eta mundiala. Sudurretik sartu eta hortik, zerura. Alde txarra, prezioa. Oso garestia omen da. Dena den, atzokoa ez nuen nik ordaindu. Loreak berak gonbidatu ninduen. Tipo batek eman ziola txortan egin eta gero esan zidan. Ordainetan. Eta ez kezkatzeko.

Primeran. Loreak esan, nik bete: ez nintzen ezertaz kezkatu. Sudurretik sartu, burura igo eta Mendiaren botak ahaztu nituen. Dena ahaztu nuen. Odolez zikindutako botak, atariko zoruko marka gorriak eta dena. Den-dena.

Hautsa mundiala da.

## • Astelehena.

Mendiaren etxean polizia ikusi dute. Zurrumuru hori zabaldu da gaur Haitzulon. Kirioak dantzan dauzkat. Batek esan, beste batek errepi-katu eta hurrengoak ere bai. Inork ez dakiela zergatik baina polizia ikusi dutela Mendiaren etxean.

Polizia.

Arratsalde osoan, matraka berberarekin. Beldurrak airean nago. Etxera joan, logelan sartu eta ez dut inorekin hitz egin nahi izan.

Dena den, gurasoek ez didate ezer galdetu. Ezta ikusi ere. Sesioan ibili dira oihuka.

### • Asteartea.

Atxilotuta ez, baina hilda bai. Mendia hilda dago.

Auzokide batek abisatuta aurkitu omen zuten. Pastilaren batek kalte egin ziola dirudi. Kalte handia, antza. Hori, behintzat, entzun dut Haitzulon.

Ederto. Asko poztu naiz jakitean. Dagoeneko, beltzaren kontuan lekukorik ez.

### • Asteazkena.

Hauts gehiago nahi badut, arazorik ez dagoela. Horixe esan dit Loreak. Morroi askori ez zaiola inporta ordaintzea.

Bada ordain dezatela. Nik, behintzat, argi daukat: larrutan izan, kobratu eta hautsa erosiko dut.

Horixe.


Laida Martínez Navarro: Bilbon jaioa 1965ean eta Bilbon euskaldundua. Euskal Herriko Unibertsitatetik Psikologian lizentziatua, egun, administraria da Bilboko Udaleko Euskera Zerbitzuan.

Besteak beste, honako sariok jaso ditu: Bilboko Udaleko Emakume Zerbitzuko 1. Saria (*Gizon tristea*, 1998), Santurtziko Udaleko Ipuin-Lehiaketan 1. Saria (*Gonbidatuak*, 1999), Bermeoko Erroxape Elkartea (*Jaun eta Jabe*, 2000), Deustuko Kiskitinak Elkarteko 1. Saria (*Ispilua*, 2000), Ermuko Udaleko Ipuin-Lehiaketan, 1. Saria (*Hiltzeko hamaika zio*, 2000)...

Aipaturiko ipuin batzuk argitaratu dira.

Gaur egun, haurrentzako liburu bat lantzen ari da.

Epai-mahaia: Juan Gartzia, Iñaki Aldekoa.



**Oharra:** Ereintza elkarteak antolatutako “Errenteria Hiria 2000ko XX. ipuin lehiaketaren” Euskarazko 1. saria